



Elejaoste

etxebizitza

Aldacrak: Giputxena / Errota

Ahozkoa: Erróta / Errótie / Kipúttxena / Pildáñena

“... la casería rústica titulada Elejaoste... situada en la Cofradía o barriada de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende ciento setenta y ocho estados, equivalentes a seiscientos setenta y siete metros cuadrados superficiales de cabida... y la que es de dos viviendas, que se componen de entresuelo...”

DJE, 1/ 232. or. (1866)



43°10'31"

2°34'41"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Oka erreken urak aprobetxatzen duen errota honen gaineko lehen aipamena aurkitzen dugu XIX. mendearen bigarren erdian, hots, *Elejaoste* (1866, DJE, 1/ 232. or.). Aldaera gutxi ezagutu dituen eraikina da honako hau: *Elejaoste* (1873, DJE, 3/ 85. or.) edota *Elejoste* (1967, BUA, CE). Egun, hiru bizitzatan banatuta dagoen errota izandako eraikin hau, eta auzotarren artean, izen desberdinekin ezagutzen da. Batetik, *Erróta* edo *Errótie* eraikinaren erabilerarekin lotuta dagoen forma dugu, eta, bestetik, *Kipúttxena* edo *Pildáñena*, jabeen goitizenezekin eta abizenekin erlazionatuta daude azken horiek.

Izenak garbi dioten moduan, eliza osteko errota izandako etxea da. Guztiz eraldatuta dago, etxe

bizitzatan antolatua eta gaur egungo bizimodura egokitzeko. Eta itxura batean, behin-tzat, ez zaio antzematen sasoi bateko izaera industrial. Luzenka izateak eta etxearen gailurra fatxada- ren paraleloa izateak XIX. mendean, behintzat, eratutako etxe baten aurrean gaudela diosku. Hala, pisu bi eta ganbaradun etxebizitzak dira. Behean, sarrerako atea, garajea eta leihoak dituzte. Lehenengo pisuan, leihoak eta balkoiak. Eta gorengoan, ganbarako leihotoak. Harlangaitzaz eraikitakoa da eta gaur egun bistan badauka ere, luzituta eta zurituta egongo zen, alde bateko goi partean ikusten den moduan.

toponimia

Latineko grezierazko jatorria duen latineko ecclesia hitzetik sortu ziren iglesia gaztelaniaz eta eliza euskaraz. Hitzaren grezierazko esanahia 'batzarra' da. Baina euskara zaharrean eleiza zen, handik sortu ziren mendebaldeko elexa eta beste euskalkietan erabiltzen den eliza. Dena dela, XX. mendean eleiza aldaera nagusitu zen Bizkaian jatorrizko elexa baztertuz. Beraz, elizaren atzeko etxea dugu hau.